

Donostian, 1995eko uztailaren 28an

Haritschelhar, J., euskaltzainburua
 Lekuona, J.M., euskaltzainburuordea
 Knörr, E., idazkaria
 Arana, J.A., diruzaina
 Altuna, P.
 Azkarate, M.
 Charritton, P.
 Davant, J.L.
 Diharce, X.
 Kintana, X.
 Krutwig, F.
 Ondarra, P.
 San Martin, J.
 Villasante, L.
 Aduriz, J.A.
 Aranalde, J.M.
 Etxebarria, J.M.
 Gandiaga, B.
 Laspiur, I.
 Loidi, J.A.
 Ruiz Urrestarazu, M.M.
 Zearreta, J.J.

Donostian, Gipuzkoako Diputazioaren jauregian, 1995eko uztailaren 28an. arratsaldeko 4.30etan, bildu da Euskaltzaindia, aldamenean aipatzen diren lagunak han zirela.

Lehendabizi, euskaltzainburuak goresmenak eman dizkio J.L. Davanti, berriki aurkeztu den *Aguirre presidentia* izeneko pastoralagatik. Arrokiagako herritarrek antzezten dute Davant jaunaren lana. J. Haritschelhar pozik agertu da pastorgintzak azken 25 urteotan erakutsi duen bizitasunagatik.

Goresmenak eman dizkio halaber euskaltzainburu jaunak Xabier Kintanari Benjamin Tuterakoaren bidaiaren liburua argitaratzegatik. Bere esker ona agertu du Kintana jaunak, eta merezimendua Nafarroako Gobernuarena eta, bereziki, Juan Cruz Alli presidente ohiarena dela esan du.

J. Haritschelharrek X. Kintanaren eraginez bidean den beste argitalpen bat alpatu du. Etxepareren liburuaren 450. urteurrenkari, *Linguae Vasconum Primitiae* argitaratu nahi da, gaztelania, frantses, aleman eta ingeles itzulpenekin.

Ondoren, E. Knörr idazkariak goizeko batzarraren berri eman du laburki.

Ignacio Omaetxebarria (1909-1995)

Luis Villasantek irakurri du gero Ignacio Omaetxebarriari buruzko bere txostena. Gernikan jaioa, Arantzazun eta Alemaniako Fuldan egin zituen ikasketak Omaetxebarria jaunak. 1932an eman zuen mezaberria. Teologia irakasle izan zen Arantzazun, baita *Aránzazu* eta *Misiones franciscanas* aldizkarien zuzendari. Liburu eta artikulu anitz argitaratu ditu gai askoren gainean, baina, zorigaitoz, beste gauza ugari papereratu gabe joan da. Ardura berezi bat izan du Ignacio Omaetxebarriak seroren ordenez, eta gai horretaz liburu batzuk plazaratu ere. Zenbait kargu izan ditu, Arnedoko komentuko bikarioa, Probintzialaren idazkaria eta Defindore generala, besteak beste. Valladoliden

bizi izan da Omaetxebarria azken hogeitau urteetan. Zenduaren bibliografia aipatuaz bukatu du Luis Villasantek bere txostena. Euskarari buruzkoetan hauek dira: “El vascuence de Juan de Zumárraga” (1948), “Nombres propios y apellidos en el País Vasco y sus contornos” (1949), “Declinación vasca” (1962), “Vascuence y romance” (1986), *Euskera. Un poco de gramática y algo de morfología del verbo vasco* (1959), e.a.

Euskal Herriko Hizkuntz Atlasa

J. Haritschelhar euskaltzainburuak hartu du ondoren hitza, B. Oihartzabalen txostenaren zioa azaltzeko. Euskaltzaindiak aurrera daramatzen bi egitasmo nagusien garrantzia adierazi du, bai eta euskaltzainek horretaz lehen eskuko argibidea izatearena ere. Egungo batzarrean Euskal Herriko Hizkuntz Atlasaren txanda dela esan du. Oroitariko Euskal Hiztegiak beste hainbeste egingo du, urtea bukatu aitzin, zuzendaria den Ibon Sarasola jaunak.

B. Oihartzabal Atlasgintzako batzordeburuak egitasmo honen egoera azaldu du. Atlas-ak dituen bi helburuak aipatu ditu: euskararen gordailua izatea eta jendeari informazioa ematea. Lehenbizikoari datxekola, lana egina dago, 2.800 galdera dituen eta 145 herritan buratu den galdekizunaz 4.500 ordutako bandak bete dira, aurtengo udaberriatik CD-ROMera pasatzen ari direnak. Bigarren partea, hau da, liburutan argitaratzeko lana, doi-doi abiatua da. Gauzak ongi joanez gero 1997 urterako plazara daiteke lehen liburukia.

Zenbait euskaltzainek hitz egin dute gero. J.A. Aranak esan du Julio de Urquijo jaunak, Oñatiko Biltzarrean, 1918an, sortzear zegoen Euskaltzaindiaren bi xede nagusiak aipatu zituela: hiztegia aberastea eta atlasa egitea. J. Haritschelhar Gramatikan, Onomastikan eta Literaturan gordetzen den hizkuntz altxorraz mintzatu da.

Eta beste gairik ez zela, bukatu da batzarra.

Jean Haritschelhar,
euskaltzainburua

Endrike Knörr,
idazkaria